

Genero Ikasketen eta Ikasketa Feministen Katedraren Genero, Emakume eta Berdintasun Gaietako Unibertsitate Masterraren gela irekia..

Izan al daitezke algoritmoak matxistak?

Noiz: 2024ko urtarrilaren 24an, asteazkena,
18:00etan.
Non: A-02 ikasgelan.

Edukia:

Izan al daitezke algoritmoak matxistak? Saio honetan *generoari buruzko kalte algoritmikoa* aztertuko dugu; izan ere, horren ondorioz, ikusezintasun eta diskriminazio algoritmikoa gerta daitezke, alde batetik, eta isilarazte algoritmikoa, bestetik. Sailkapen horren oinarri teorikoez hitz egingen dugu, baita era horretako erronkak ilustratzen dituzten kasu jakinez ere. Azpimarra berezia jarriko dugu genero desinformazioan, plataforma digitaletako algoritmoek bultzatzen duten horretan, arriskutsua baita emakumeentzat ez ezik, baita demokrazientzat ere. Garrantzi eta premia handiko eztabaida zirraragarria da.

Aipamen laburra:

Miren Gutiérrez Komunikazioko doktorea da, eta ARES programako ikertzaile nagusia Deustuko Unibertsitatean (erresistentzia antifeministen analisia, <https://antifeministresistances.com/>, Espainiako Ikerketa Agentziak finantzaturiko programa). Datuek eta algoritmoek aktibismo feministarako eta eztabaida politiko eta sozialerako tresna gisa duten zeregina du aztergai nagusia. *Data activism and social change* liburuaren egilea da (London: Palgrave-Macmillan). 2024rako, nazioarteko biltzar bat antolatu du "Emakumeak, Teknologia eta Boterea" hizpide hartuta (ekainaren 18tik 19ra, Deustuko Unibertsitatea, Donostia).

